

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Ardantza kaleko 2 zenbakiko bizilagun batek eskatu du arbola guztiak espaloiaaren arrasean landatzeko eta pegora parean dagoen arbola kentzeko.	Arbola hori ez dago behar bezala landatuta, haren adaburua fatxadatik oso gertu dagoelako, eta txorkoa fatxada-lerrotik 2 metro baino gutxiagora; hortaz, arbola erretiratzea gomendatzen da.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Eskatu dute Abontzako garajeen irteerako argiak aldatzeko. Dioenez, txakur asko eramaten dira horra txiza eta kaka egiteko.	Garajeen irteerako farolaren Led-a ordeztu da, eta, beraz, tokia behar bezala argizatuta geratu da. Halaber, ikusten denean txakur baten jabeak ez duela bere animaliaaren kaka jasotzen, bidezkoa den salaketa jasotzen da. Azken hilabeteotan, zaintza-kanpaina espezifikoak egiten ari dira halako intzidentziak saihesteko herriko hainbat puntutan.
Obrak	Egogain kaleko bizilagun batek kexa azaldu du trenek ateratzen duten zaratagatik. Dioenez, sistemaren bat jar liteke trenbidea hezetu eta zarata arintzeko.	Euskal Trenbide Sarea inguruko zaraten azterketa egiten ari da.
Hirigintza	Untzagako dorreko bizilagun batek dioenez, euria egiten duenean, tabernek terrazetako mahai guztiak arkupeen barruan lagatzen dituzte, eta eragotzi egiten dute han bizi den jendea igarotzea.	Terrazak arautu dira eta Udaltzaingoa arau-haustek kontrolatzen ditu; espedienteak irekitzen ditu hala dagokionean.
Obrak	Eskatu du alda daitezela Isasi kaleko zenbaki bikoitien espaloiko baldosak Euria ari duenean irristakor egoten omen da.	Zer irtenbide har daitekeen aztertzen ari gara.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar bat kexu da Isasi kaleko argiztapena oso urria delako.	2022ko martxoan, Isasi kaleko argiteria publiko osoa berrikusi zen, eta argi guztiak behar bezala laga ziren, arazorik gabe.
Udaltzaingoa	Herritar batek dio gune urdina soilik Isasi kaleko goialdean egon beharko lukeela, eta ez kale osoan.	Isasi kaleko gune urdinaren erabilerari buruzko datuak jaso ondoren, Trafiko Batzordeak erabaki zuen gune urdina ezkerreko aldean mantentzea (ibilgailuen noranzkoaren arabera), eta ezkerrekoa zuri izatera pasatzea. Seinalizazioaren aldaketa egin behar da.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea noiz egingo den Julian Etxeberria kaleko noranzko-aldaketa, eta ea nondik bili beharko duten oinezkoek.	Proiektuaren idazketa aurten amaituko da.
Udaltzaingoa	Herritar batek salatu du txakur-kaka pila bat dagoela herrian.	Ikusten denean txakur baten jabeak ez duela bere animaliaaren kaka jasotzen, bidezkoa den salaketa egiten da. Azken hilabeteotan, zaintza-kanpaina espezifikoak egiten ari dira halako intzidentziak saihesteko herriko hainbat puntutan.
Zerbitzuak	Kexu da Untzagako argiztapena urria delako.	Argiteria publikoaren energia-eraginkortasunari buruzko erregelamenduaren arabera, kale/plaza horretako batez besteko argiztapena 15 lux-ekoa izango da, eta gehienekoa 36 lux-ekoa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
		Egun batez besteko argiztapena 81,82 lux-ekoa da eta gehienekoa 214,4-koa; hortaz, ulertzen da plaza argiztatuegi edo gainargiztatua dagoela.
Udaltzaingoa	Eskatu dute Udaltzaingoak bere kontrolak indartzea asteburuetan.	2021eko udaz geroztik, Udaltzaingoa gaueko txanda indartzen ari da larunbatero, segurtasuna areagotu eta edozelako intzidentziak saihesteko.
Udaltzaingoa	Errebal 9 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea zehapena jartzen zaien COVID-19aren neurriak betetzen ez dituztenei eta ea kobratzen diren.	Pandemian, 1.000 salaketa inguru egin dira pandemiaren fase desberdinetan indarrean zeuden neurriak urratzeagatik. Gehienak Eusko Jaurlaritzatik izapidetu dira, eta ez dakigu zenbat kobratu ahal izan diren.
Udaltzaingoa	Proposatzen dute txakurren kakak eta txizak ADN sistema baten bidez kontrolatzea.	Gaur egun, animaliak eduki eta babesteko ordenantza aldatzeko aukera aztertzen ari da, eta neurriak hartu nahi dira txakurren jabeek horrelako arau-haustek murrizteko.
Zerbitzuak	Kexu da Errebal inguruko eskailera mekanikoak ez direla gau osoan geratzen.	Fotozelulen arazo bat izan zen. Aldatu zirenean, konpondu egin zen arazoa.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea zerbait egin daitekeen umeei plazan baloiarekin jolasean ez egiteko.	Gazteak herriko edozein tokitan futbolearen jolastan ari direla ikusten denean edo deiak jasotzen direnean, egiaztatu egiten da eta, eragozpenak benetakoak badira, horren arabera jokatzeko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek informazioa eskatu du jakiteko noiz egin behar den azterketa trenaren zaratari buruz.	Euskal Trenbide Sarea otsailean hasi da aztertzeo neurketekin.
Zerbitzuak Obrak	/ Julian Etxeberria kaleko bizilagun batek eskatu du ez botatzeko arbola gehiago, eta gehiago jartzeko obraren bat egiten denean.	Zerbitzu Sailak ez ditu arbolak botatzen, ez bada arriskua dagoelako. Hala eta guztiz ere, Julian Etxeberria kalearen antolamendu berriarekin zuhaitziak egoteko gunek bat sortu nahi da.
Zerbitzuak	Eskatu du berriz landatzeko San Andres eliza parean bota zen arbola.	Arbola hori 2022ko otsailean landatu zen.
Zerbitzuak	Salatu du San Andres elizako espaloian dauden edukiontziek zatartu egiten dutela ingurua.	Mankomunitatearen arabera, behin baino gehiagotan proposatu dute alboko kargako edukiontzietara aldatzea, edukiontzi-kopurua eta espazioa murrizteko eta eskuinaldera pasatzeko, baina Udalak ezetz esan du.
Zerbitzuak	Galdetu du ea arbola gehiago landatu behar diren Errebalen.	Hobekuntza bat egiten ari dira Errebal inguruko jardinetan, eta aurreikusita dago arbolak landatzea. Arbola horiek 2022-2023ko negu-sasoian landatuko dira.
Zerbitzuak	Salatu dute Bidebarrieta eta Julian Etxeberriaren arteko bihurgunean dagoen lorategia oso zikin dagoela.	2022ko martxoan egin ziren lorategi horri dagozkion garbiketa- eta mantentze-lanak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Egogain kaleko bankuak bernizatzeke.	Otsailean eta martxoan Egogaineko banku guztiak pintatu dira.
Zerbitzuak	Kexu da Toribio Etxebarria kaleko Kutxabank banketxearen parean dagoen argia itzali eta piztu egiten delako.	Argi hori konponduta dago. Gainera, urtarrilean Toribio Etxebarria kaleko argiteria guztia berrikusi zen.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Bidebarrieta kaleko 8 zenbaki parean dagoen argia aldatzeko. Dioenez, argi gutxi ematen du.	Argia 2022ko martxoan konpondu zen.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da baldosa solte asko dagoelako Eibarren.	Herriko baldosak pixkanaka aztertzen eta konpontzen ari dira.
Udaltzaingoa	Salatu dute pertsona asko egiten dutela txiza Ardantzako parkeko iturrian, bai eta Zezenbide 2 zenbakian eta Bista eder kalean.	Norbait bide publikoan txiza egiten ikusten denean, Garbitasunaren Ordenantzari arau-haustea egiteagatik bidezkoa den salaketa egiten da.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek proposatu du Egogain kaleko 4 zenbakitik aurrera seinale bat jartzeko errepidean adierazteko non dauden kale horretako zenbakiak pegora horretatik aurrera.	Ez da beharrezkotzat jotzen seinale hori jartzea.
Obrak	Errebal kaleko bizilagun batek salatu du Errebal Plaza eraikinaren estalkia puzteak zarata handia ateratzen duela.	Zarataren arazoa konpontzeko beharrezko egokitzapenak egin ziren.
Zerbitzuak	Eskatu du Egogain kaleko 8 zenbaki parean dauden edukiontziek aho handiagoa izatea, batez ere, paperezkoak eta plastikozkoak.	Bide publikoan dauden igluek aho homologatuak dituzte eta tamaina jakin bat.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da Egogain kaleko 6 eta 20 zenbakien arteko arkupeen sabaia oso zikin dagoelako.	Argiak erre ahala, elektrikariek sabaiak garbitzen dituzte. Nolanahi ere, arkuen mantenimendua jabetzari dagokio.
Udaltzaingoa	Herritar batek galdetu du ea zer aukera dagoen umeek futboleant jolasteko, batez ere, erdigunean.	Ez dago baimenduta bide publikoan futboleant aritzea jendeari eragozpenak edo arriskua eraginez.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea zenbat aparkaleku-plaza kendu behar diren Julian Etxeberriako obrekin, eta ea aldatuko litzatekeen zirkulazioaren noranzkoa San Agustin kalean.	Julian Etxeberria kalean 65 aparkaleku daude gaur egun; horietatik 11 terrazarako erabiltzen dira, eta 13 zamalanetarako. Proiektuaren proposamenetan 31 aparkaleku eta zamalanetarako 9 plaza proposatzen dira. Halaber, San Agustin kaleko zirkulazioaren noranzkoa aldatuko dela berresten da.
Udaltzaingoa	Herritar batek eskatu du Zuloagarren kalea 22:00etan zabaltzea eta ez 06:00etan, hala, aste barruan ere aparkatu ahal izateko.	Une honetan, Eibarko peatonalizazioari buruzko azterlan bat egiten ari dira, eta bertan egungo erregulazioan komenigarriak izan daitezkeen aldaketak jasoko dira.
Obrak	Galdetu dute ea egin zen soinu-azterketarik Errebal Plazia eraikina diseinatu zenean.	Doikuntzak egin ziren zarata-arazoa saihesteko.
Zerbitzuak	Kexu da Legarreko entsegu-lokalak ez daudelako egoera onean eta ia beti daudelako hartuta.	Eibarko Gazte Musika Elkartea arduratzen da lokal horiek kudeatzeaz, eta Kultura Sailak behin eta berriz eskatu dio gune batzuk beste erabiltzaile batzuei uzteko. Elkartea bera arduratzen da mantentze-lan txikiak egiteaz.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Galdetu du ea noiz ematen zaien erantzuna auzo-bileretan aurkeztutako kexa eta iradokizunei.	Erantzunak argitaratzen sail ezberdinen bidalketa-erritmoaren arabera. Nolanahi ere, epe laburrean idatzizko erantzunik ematen ez bada ere, egin daitezkeen jarduerak gauzatu egiten dira.
Udaltzaingoa	Herritar batek salatu du Untzaga 2 eta 3 zenbaki aurrean jarritako tabernetako terrazek oztopatu egiten dutela jendea hortik igarotzea, errepidera irtetera behartuz. Eskatu du bete dadila espaloiarenekin pasabide libreko 2 metroko araua.	Taberna horiei terrazaren instalazioa zutabeetatik kanporakoa izatea eskatu zaie, arkupeen eremuan beti pasabide bat libre uzteko.
Zerbitzuak	Kexu da Mankomunitateko garbiketa-makinek zarata handia ateratzen dutela, eta oso goiz hasten direla lanean. Eskatu du, asteburuetan, garbiketa beste leku batzuetan egiteko.	Zaradari dagokionez, lehen orduan haize-makina elektrikoak dituzte eta lehen bi orduetan gutxienez erabiltzen dira. Batzuek lanaldi osoa ere egiten dute makina horiekin. Makina ekortzaileak homologatuta daude eta lizitatzeko orduan indarrean dauden zuzentarauak betetzen dituzte zaradari dagokionez (Europako 200/14/EE Zuzentaraua, aire zabalean erabiltzeko makinek ingurumenean eragindako soinu-emisioei eta gehieneko potentzia akustikoaren mailaren markaketari buruzkoa, dB(A)-n adierazia, eta EN ISO 3744 arauaren arabera neurtua). Herriaren erdigunea da lehenik garbitzen dena, baliabideak eta ibilbideak optimizatzearen. Gainera, Eibarren beste toki batzuetan baino beranduago hasten da bide-garbiketa; izan ere

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2021/11/18

Saila

Laburpena

herrian 7:00etan hasten da eta beste herri batzuetan
6:00etan.